

Pirinioetan ikertu dituzten ibaietan antibiotikoak aurkitu dituzte

Aragoin, Argan, Aturrin, Bidasoan eta Urumean jasotako lagin orotan aurkitu dituzte botikak, batez ere herrien eta abere haztegien inguruan

Edu Lartzanguren

Europako Batasuneko ikerketa egitasmo batek Pirinioetako hamasei ibaitako ur laginak ikertu ditu. Euskal Herrian bost ibaitako ura aztertu dute: zehazki, Aragoi, Arga, Urumea, Aturri eta Bidasoa. Guztietan topatu dituzte antibiotikoak; tartean amoxicilina, azitromizina, sulfadiazina, enrofloxazina eta trimetoprima. Batez ere herri eta hiri handien inguruan aurkitu dituzte botiken zantzua, baina baita abere etxalde handietatik gertu ere. Kontzentrazio handienak Ebroren aroko ibaietan aurkitu dituzte, zeri eta hegazti haztegiatik gertu.

Gaur Osasunaren Eguna dela baliaturik, ikerketaren ondorioak ezagutarazi ditu Jairo Gomez Muñoz Nilsa Nafarroako Tokiko Azpiegiturak sozietate publikoko teknikariak. Erakunde hori arduratzen da Nafarroako araztegien

sareaz, eta Europako Batasuneko Poctefa Outobiotics egitasmoan parte hartu du, Nafarroako Unibertsitatearekin, Zaragozako Unibertsitatearekin (Espainia), Lleidakako Unibertsitatearekin (Katalunia) eta Paueko Zientzia Analitikoaren Institutuarekin batera (Okzitania).

Sendagaiok naturan egotea arriskutsua da, bakterio erresistenteak sortzen laguntzen baitu. Osasunaren Mundu Erakundeak mundu mailako arriskutzat izendatu du bakterioen erresistentzia. Hainbat ikerketaren arabera, Europar gutxienez 25.000 lagun hiltzen dira urtero antibiotikoei erresistentzia dieten infekzioen eraginez, eta 1.500 milioi euro galitzen dira kostu zuzenetan –tratamenduetan– eta zeharkakoetan –produktibitatearen galeran–.

Ikerketak hiru helburu ditu: egoera diagnostikatzea, kutsagarriak murriztea, eta, azkenean,



Ur zikinetatik antibiotikoak kentzeko proiektua, Tuteran. NAFARROAKO GOBERNUA

isuriak gelditzea. Horretarako, funtsezkotzat jo du abeltzaintzan lan egitea, antibiotikoak gutxitzeko. «Zenbat eta lehenago hasi, orduan eta txikiagoa izango da kaltea, eta arriskua murriztuko da», idatzi du ikertzaileak. Laginetan, gainera, gutxienez antibiotiko familia baten aurka erresistentzia garatu duten bakterioak aurkitu dituzte.

Konponbide multzo bat proposatu dute. Animalien pentsuari gehitu dakizkiokeen nanomaterialak aztertu dituzte. Antibiotikoen eragina handitu egiten dute, ikertzaileen arabera, eta, ondorioz, gutxiago erabili behar da.

Ura garbitzeko hiru teknologia aztertu dituzte, bai laborategian, baita eskala industrialean ere: oxidazioa, xurgatzea eta fotokatalisia. Hainbat gai kimiko erabili dituzte antibiotikoak uretatik kentzeko. «Teknologia hau eraman daiteke kutsadura iturrietara, erietxeetara, botikagintza enpresetara eta hiltegiatara, kasurako; bakoitzaren egoerara moldatuta». Izan ere, ikertzaileek ondorioztatu dute merkeagoa izango dela kutsadura sorguneetan tratatzea, gero araztegiatan baino, han kutsadura askoz kontzentratuagoa dagoelako, eta askoz ur bolumen txikiagoa tratatu behar delako.